

# PROBA ESPEZIFIKOA

201( ko PROBA

**HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Probaren iraupena: **ordubete**.

### 1. TESTU-IRUZKINA. (4 puntu)

“Aukera argi eta distiratsu bat ageri da orain gure herrialdeentzat. Onartzea ukatuz gero, edo alferrik galtzen utziz gero, ondorengo gaitzespena jasoko genuke denbora luzean (...) harriaren aroa ager daiteke zientzia hegal liluragarrien azpian (...) Kontuz ibili, diotsuet, beharbada ia ez da astirik izango (...)

Stettin-etik, Baltikoan, Triestera, Adriatikoan, “burdinazko hesi” bat erori da kontinentean zehar. Lerro horren atzean, Europako erdialdeko eta ekialdeko antzinako estatu guztien hiriburuak daude: Varsovia, Berlin, Praga, Viena, Budapest, Belgrad, Bukarest eta Sofia. Hiri ospetsu horiek guztiak eta haien inguruko biztanleak nik sobietar eraginaren eremu deitu behar diodanaren barnean daude, eta guztiak ere (...) Moskuren kontrol gero eta handiagoaren mende.

Atenas soilik —Grezia— da aske bere etorkizuna hauteskunderetan erabakitzeko, britainiarrek eta frantsesek gainbegiratuta. Poloniako Gobernuak, errusiarrek menderatua, adoretu egin dute usurpazio erraldoiak eta okerrekoak egin ditzan Alemaniaren bizkar (...)

Alderdi komunistek, Europako ekialdeko herrialde horietan txikiak baitziren (...), kontrol absolutua eskuratu nahi dute nonahi (...). Beharrezkoa da ingelesez mintzo diren herriek elkar hartzea lehenbailehen, errusiarrei gutizia- edo abentura-saio guztiak galarazteko”.

*W. Churchill, Fultongo Unibertsitatean (Missouri), 1946ko martxoaren 5ean*

### TESTUARI BURUZKO IRUZKINAK EGIN ALDERDI HAUEI DAGOKIENEZ:

- Ideia nagusiak
- Ezaugarriak
- Testuingurua
- Konklusioak



**2. Azpiko taulan, ordenatu itzazu kronologikoki informazio hauek. (2 puntu)**

- A. Vietnamgo gerraren amaiera
- B. Frantziaren kontrako gerra hasia Aljerian
- C. Bandung-eko Konferentzia
- D. Politika ekonomiko berriaren aplikatzen hasia SESBn
- E. Hitler boterera iristea Alemanian
- F. Japoniarrek Mantxuria okupatzea
- G. Lehen Mundu Gerra hasia
- H. Trotskik Armada Gorria sortzea
- I. Locarnoko Ituna
- J. Kennedy presidentea erailtea

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

**3. Egin ezazu mapa honen iruzkin labur bat. (2,5 puntu)**



Zona ocupada = Zona okupatua

Zona libre = Zona askea

**4. Defini itzazu, labur, termino hauek. Aukeran eskaintzen zaizkizun seietatik hiru hautatu behar dituzu. (Ariketa osoa: 1,5 puntu. / 0,5 puntu definizio bakoitzeko).**

- 1. Al Qaeda
- 2. Anschluss
- 3. Balkanizazioa
- 4. Klase-gizartea
- 5. Sobietak
- 6. SALT hitzarmenak



## ORIENTABIDE GISAKO EBAZPENA

2.

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
G	H	D	I	F	E	B	C	J	A
1914	1917	1921	1925	1931	1933	1954	1955	1963	1975

3.

Frantziako mapa 1940ko ekainetik 1942ko azarora. Iparraldean, Alemania naziaren okupazioaren mendeko eremua (arrosa argia). Hegoaldean, Vichyren Frantzia (lila). Italiako armadak okupatutako zona (berdea) zabaldu egiten da eremu lila marra zeharrez estali arte 1942ko azaroaz geroztik. Gorriz, Frantziako kostaldea ageri da, zuzenean gobernu militar alemanaren mende baitzegoen, baita Alsazia eta Lorrena ere, 1940an Hirugarren Reichera erantsiak. Puntukako lerro urdina "mugako marra" da, Wehrmacht-ek barne-muga gisa ezarria, gurutzatze mugatukoa.

### KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Galdera bakoitzaren ondoan, dagokion puntuazioa ageri da, 10 puntu osatu arte

### KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

#### Irizpide orokorra

Kontuan hartuko dira erantzunen zuzentasuna, azalpenaren argitasuna eta kalitatea, egituratzea (batez ere, testu-iruzkinean), hiztegiaren kalitatea eta hizkuntza-zuzentasuna.

#### Irizpide espezifikoak

- Zehaztasunez, koherentziaz eta era ordenatu batean erantzuten die galderari.
- Zuzen interpretatzen ditu mapak, grafikoak eta estatistika-taulak.
- Zuzen iruzkintzen du emandako testua alderdi garrantzitsu guztietan.

### GALDEREN ETA CURRICULUMAREN ARTEKO ERLAZIOA

GALDERA	IKASKUNTZA-UNITATEA
1. ARIKETA	2. blokea
2. ARIKETA	1.tik 6.era bitarteko blokeak
3. ARIKETA	2. blokea
4. ARIKETA	1.tik 6.era bitarteko blokeak